

Bidaiarien sarrerek % 12 egin dute gora Euskadiko autonomia-erkidegoan 2010eko uztailean

Ostatu-gauak ere % 11 egin dute gora 2009ko uztailarekin alderatuta

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak, 2010eko uztailean, 241.165 izan dira, aurreko urteko hilabete berean baino 25.000 sarrera gehiago. Beraz, % 12ko igoera egon da, Eustat-en datuen arabera. Bidaiarien sarrerek % 27 egin dute gora Araban, % 5 Bizkaian eta % 14 Gipuzkoan.

Estatuko bidaiarien sarrerek % 9 egin dute gora, eta atzerriko bidaiarien kopuruak, berriz, % 16. Estatuko bidaiariak hiru lurraldeetan handitu dute euren presentzia. Araban % 17 egin dute gora, Bizkaian % 5 eta, Gipuzkoan, % 10. Atzerritarrek ere hiru lurraldeetan handitu dute euren kopurua: % 50 Araban, % 5 Bizkaian eta % 19 Gipuzkoan.

Estatuko bidaiarietan, portzentajeak gora egin du Madril, Katalunia, Valentzia, Asturias, Andaluzia eta Galiziatik etorri direnei dagokienez, eta behera, berriz, Balearrak, Kantabria, Gaztela-Mantxa eta Nafarroatik etorri direnei dagokienez, besteak beste. Atzerritarren artean, igo egin dira, gehiago edo gutxiago, herrialde guztietatik etorritakoak, Luxenburgo, Danimarka eta Finlandiatik etorritakoak izan ezik. Portzentaje-igoerarik handienak herrialde hauetako bidaiariak izan dituzte: Frantzia, Portugal eta Iberoamerika.

2010eko uztailean izan diren ostatu-gauak 467.594 izan dira, hau da, % 11ko igoera (45.500 ostatu-gau gehiago) aurreko urteko uztailean baino. Ostatu-gauak urte arteko bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Araban % 21 egin dute gora, Bizkaian % 7 eta Gipuzkoan % 12.

Batez besteko egonaldiaren iraupena apur bat laburtu da 2009ko uztailarekin alderatuta Euskadiko autonomia-erkidegoan: 1,95 egun 2009ko uztailean eta 1,94 egun 2010eko uztailean. Lurraldeka, Araban laburtu egin da 1,83 egunetik 1,74ra, Gipuzkoan laburtu egin da 2,16 egunetik 2,12ra, eta Bizkaian luzatu egin da 1,82 egunetik 1,85era.

Plazen okupazio-mailak % 5 egin du gora, eta % 56,22koa izan da 2010eko uztailean. Egiatzatu da igoera horrek Arabako eta Gipuzkoako lurraldeei eragin diela. Izan ere, horietan, % 6 eta % 12ko igoerak izan dira hurrenez hurren. Okupazioa % 48,49koa izan da Araban eta % 67,83koa Gipuzkoan. Bizkaian, plazen okupazio-maila ez da askorik aldatu 2009ko uztailekoarekin alderatuta: % 50,11tik % 50,17ra pasatu da.

NEKAZARITZA-TURISMOKO ESTABLEZIMENDUAK

Euskadiko autonomia-erkidegoan, sarrerek % 16 egin dute gora eta ostatu-gauak % 12, 2009ko uztailarekin alderatuta.

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetako bidaiari-sarrerak, uztailean, 15.968 izan dira, aurreko urteko hilabete berdinean baino % 16 gehiago. Hiru lurraldeetan izan dira emaitza positiboak: Araban (% 5), Bizkaian (% 10) eta, batez ere, Gipuzkoan (% 23). Estatuko bidaiarien kopuruak % 17 egin du gora Euskadiko autonomia-erkidegoan: % 16 egin du gora Araban, % 10 Bizkaian eta % 21 Gipuzkoan. Atzerriarren sarrera-kopuruak ere % 10 egin du gora erkidego osoan. Lurraldeka, Araban modu esanguratsuan txikitu da kopurua, Gipuzkoan nabarmen handitu da eta Bizkaian ere handitu egin da baina gutxiago, portzentajeei dagokienez.

Euskadiko autonomia-erkidegoko nekazaritza-turismoko establezimenduetan eginiko ostatu-gauak 47.828 izan dira uztailean, hau da, aurreko urtean baino % 12 gehiago. Urte arteko hazkunde-tasak positiboak izan dira Araban (% 16) eta Gipuzkoan (% 18), eta mantendu egin dira Bizkaian.

Euskadiko autonomia-erkidego osoan, bidaiari bakoitzeko batez besteko egonaldia apur bat laburtu da 2009ko uztailarekin alderatuta: 3,09 egunekoa izan zen iaz, eta 3,00 egunekoa 2010eko uztailean. Horrela, bilakaera negatibo hori Gipuzkoara eta Bizkaira zabaldu da. Izan ere, Gipuzkoan, jaitsiera % 4koa izan da, batez besteko egonaldia 3,39 egunekoa izan zelako 2009ko uztailean eta 3,26koa 2010eko uztailean. Bizkaian, aldiz, 2,88koa izan zen 2009ko uztailean eta 2,63koa 2010eko uztailean. Araban, berriz, % 10 luzatu da bestez besteko egonaldia: 2,52 egunekoa izan zen 2009ko uztailean eta 2,77koa 2010eko uztailean.

Plazen okupazio-maila % 6 handitu da, % 36,10etik % 38,29ra pasatuz, Gipuzkoan (% 14) eta Araban (% 3) izandako igoerei esker. Horiek konpentsatu egiten dute Bizkaian izandako jaitsiera (% -6).

TURISMO-ESTABLEZIMENDU HARTZAILEEN INKESTA 2010eko UZTAILA

1. taula: Euskal AEko hotel eta nekazalturismoko establezimenduak Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	07 2010	(%)	07 2009	(%)	Δ %	07 2010	(%)	07 2009	(%)	Δ %	07 2010	(%)	07 2009	(%)	Δ %	07 2010	(%)	07 2009	(%)	Δ %
	HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																			
GAUALDIAK	467.594	100	422.064	100	11	67.959	100	56.368	100	21	197.286	100	184.272	100	7	202.349	100	181.424	100	12
Estatukoak	287.501	61	257.138	61	12	46.950	69	40.000	71	17	121.773	62	109.790	60	11	118.778	59	107.348	59	11
Atzerrikoak	180.093	39	164.926	39	9	21.009	31	16.368	29	28	75.513	38	74.482	40	1	83.571	41	74.076	41	13
Hiriburua	287.575	62	252.315	60	14	50.995	75	38.638	69	32	122.089	62	113.646	62	7	114.491	57	100.031	55	14
Litoral	62.589	13	58.452	14	7	-	-	-	-	-	22.973	12	20.910	11	10	39.616	20	37.542	21	6
Barnealdea	117.430	25	111.297	26	6	16.964	25	17.730	31	-4	52.224	26	49.716	27	5	48.242	24	43.851	24	10
BIDAIARIEN SARRERAK	241.165	100	216.140	100	12	39.004	100	30.754	100	27	106.663	100	101.501	100	5	95.498	100	83.885	100	14
Estatukoak	144.531	60	132.545	61	9	25.156	64	21.529	70	17	64.672	61	61.329	60	5	54.703	57	49.687	59	10
Atzerrikoak	96.634	40	83.595	39	16	13.848	36	9.225	30	50	41.991	39	40.172	40	5	40.795	43	34.198	41	19
Hiriburua	145.478	60	126.563	59	15	27.576	71	19.432	63	42	66.636	62	62.639	62	6	51.266	54	44.492	53	15
Litoral	27.672	11	26.817	12	3	-	-	-	-	-	10.441	10	10.437	10	0	17.231	18	16.380	20	5
Barnealdea	68.015	28	62.760	29	8	11.428	29	11.322	37	1	29.586	28	28.425	28	4	27.001	28	23.013	27	17
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,94		1,95		-1	1,74		1,83		-5	1,85		1,82		2	2,12		2,16		-2
BETETZE-MAILA PLAZAKA	56,22		53,31		5	48,49		45,64		6	50,17		50,11		0	67,83		60,38		12
Hiriburua	63,15		58,43		8	53,24		48,38		10	55,83		54,10		3	81,26		70,50		15
Litoral	67,48		59,46		13	-		-		-	57,54		52,86		9	75,00		63,91		17
Barnealdea	41,41		42,54		-3	38,24		40,62		-6	38,79		42,09		-8	46,12		43,92		5
BETETZE-MAILA GELAKA	62,49		61,24		2	54,89		54,54		1	57,81		58,77		-2	72,43		67,31		8
Hiriburua	70,71		67,83		4	62,04		60,73		2	65,13		64,00		2	85,70		78,44		9
Litoral	71,41		67,26		6	-		-		-	60,35		61,46		-2	78,93		71,17		11
Barnealdea	46,36		48,85		-5	39,68		42,74		-7	45,02		48,94		-8	50,99		51,35		-1
	NEKAZALTURISMOA																			
GAUALDIAK	47.828	100	42.545	100	12	6.544	100	5.663	100	16	12.767	100	12.759	100	0	28.517	100	24.123	100	18
Estatukoak	38.358	80	34.023	80	13	5.564	85	4.494	79	24	9.796	77	9.783	77	0	22.998	81	19.746	82	16
Atzerrikoak	9.470	20	8.522	20	11	980	15	1.169	21	-16	2.971	23	2.976	23	0	5.519	19	4.377	18	26
BIDAIARIEN SARRERAK	15.968	100	13.782	100	16	2.359	100	2.248	100	5	4.861	100	4.425	100	10	8.748	100	7.109	100	23
Estatukoak	13.394	84	11.440	83	17	2.155	91	1.850	82	16	3.916	81	3.557	80	10	7.323	84	6.033	85	21
Atzerrikoak	2.574	16	2.342	17	10	204	9	398	18	-49	945	19	868	20	9	1.425	16	1.076	15	32
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	3,00		3,09		-3	2,77		2,52		10	2,63		2,88		-9	3,26		3,39		-4
BETETZE-MAILA PLAZAKA	38,29		36,10		6	25,43		24,69		3	30,71		32,56		-6	49,51		43,28		14
BETETZE-MAILA GELAKA	40,30		40,17		0	27,29		29,78		-8	32,26		36,13		-11	52,45		47,61		10

Iturria: EUSTAT. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (ETHI)

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

ETHI-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETHI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestari buruzko datu-bankua